Si en la solicitud se hubieran incluido facturas y sus justificantes de pago, el abono de la subvención se realizará por el importe justificado en el momento de la concesión de la subvención. En este caso, la solicitud junto con las facturas y sus justificantes de abono, tendrán la consideración de cuenta justificativa.

El abono correspondiente a los conceptos en los que no se hubiera presentado factura y justificante de abono junto con la solicitud, se realizará tras la presentación de la cuenta justificativa, previa comprobación de que el gasto tiene la consideración de hecho subvencionable y que el importe económico se ajusta a lo subvencionado.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social, así como el mantenimiento del resto de requisitos.

Artículo 11. Plazo de justificación.

La presentación de la justificación finalizará a las 13:30 horas del 30 de noviembre de 2019.

La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la declaración de incumplimiento con las responsabilidades establecidas en la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el reglamento que la desarrolla, y previo requerimiento para que en el plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente al que tenga lugar la notificación, la presente.

Artículo 12. Forma de justificación.

Las subvenciones deberán justificarse mediante la presentación, a través de la oficina virtual indicada en el artículo 7, en el apartado "Mis Expedientes", "Realizar Justificaciones", de la cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, lo que implica la aportación de la siguiente documentación:

- a) Memoria en la que conste expresamente el mantenimiento de la condición por la que se concede la subvención según modelo oficial.
- b) Relación clasificada de gastos del hecho subvencionado. Este documento se cumplimentará a través de la oficina virtual.
- c) Relación detallada de otros ingresos que hayan financiado la actividad subvencionada, según modelo oficial.
- d) Facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico mercantil y sus justificantes de abono.

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial



laguntzaren justifikaziorako beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio entitate onuradunari.

Diruz lagun daitekeen gastu edo inbertsioaren zenbateko guztia justifikatu behar da, ez emaniko diru-laguntzaren zenbatekoa.

Justifikaziorako jarraibideak eta eredu ofizialak www.bizkaia.eus web orrian daude (enpresak eta nazioartekotzea-ekintzaziletza-industria moduluak, bulegoak eta industriarako lurzorua).

II. TITULUA

Elkartegiak enpresa-zentroetan edo industria-pabilioietan kokatutako enpresetako instalazioak edo makinak modernizatzea.

13. artikulua. Xedea.

Titulu honen xedea da instalazioak edo makinak modernizatzeko inbertsioak egiteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea:

- a) Azpiegiturak SAMP foru-sozietate publikoak kudeatutako elkartegietan kokatuta dauden enpresetan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duten industrialdeetako enpresetan.
- b) 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako industrialdeetan kokatuta dauden enpresetan.

Elkartegi eta industrialdeen zerrenda I. eranskinean dago.

14. artikulua. Entitate onuradunak.

Enpresaburu indibidualek eta nortasun juridiko propioa duten enpresek jaso ahal izango dituzte titulu honetan araututako diru-laguntzak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) I. eranskinean zehazten diren industrialdeetan kokatuta egotea.
- c) Jabetzan izatea edo errenta-araubidean egotea eta errentatzailearekin hartutako betebeharrak egunean izatea.
- d) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzeari dagozkionak.
- e) Banakako enpresaburuak badira, Gizarte Segurantzaren langile autonomoen araubide berezian eta ekonomia-jardueren gaineko zergan epigrafe egokian alta emanda egotea.

f) Merkataritzako sozietateak badira, ekonomia-

podrá requerir a la entidad beneficiaria cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada justificación de la subvención.

La justificación se realizará por el importe total del gasto o inversión subvencionable, no por el importe de la subvención concedida.

Las instrucciones de justificación y los modelos oficiales estarán disponibles en la página web www.bizkaia.eus - empresas e internacionalización - emprendimiento - módulos industriales, oficinas y suelo.

TÍTULO II

Modernización de instalaciones o maquinaria en empresas ubicadas en centros de empresas-elkartegiak, o en polígonos industriales

Artículo 13. Objeto.

Constituye el objeto del presente Título aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la realización de inversiones para la modernización de instalaciones o maquinaria en:

- a) Empresas ubicadas en Elkartegiak gestionados por la sociedad pública foral Azpiegiturak, S.A.M.P., y empresas ubicadas en los polígonos industriales participados por la Diputación Foral de Bizkaia.
- b) Empresas ubicadas en polígonos industriales establecidos en municipios menores de 10.000 habitantes.

La relación de Elkartegiak y polígonos industriales se relaciona en el Anexo I.

Artículo 14. Entidades beneficiarias.

Podrán acceder a las subvenciones reguladas en este Título, los empresarios y empresarias individuales y empresas con personalidad jurídica propia que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- b) Estar ubicadas en alguno de los polígonos establecidos en el Anexo I.
- c) Tener la propiedad o estar en régimen de alquiler y estar al corriente respecto de sus obligaciones económicas contraídas con la arrendadora.
- d) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.
- e) En el caso de empresarios y empresarias individuales estar en situación de alta en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos de la Seguridad Social, así como en el epígrafe correspondiente del Impuesto sobre Actividades Económicas.

f) En el caso de sociedades mercantiles, estar dadas de



jardueren gaineko zergan epigrafe egokian alta emanda egotea, eta Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egotea.

g) Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitoren bitartez egiaztatuko da.

h) Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitoren bitartez egiaztatuko da.

i) Eskabidea aurkeztu aurreko 6 hilabeteetan 15 langile edo gutxiago izatea plantillan.

Plantillakotzat joko dira enpresaren jarduerari atxikita dauden baina euren izaeratik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon ezin diren langile autonomoak.

j) Azken zerga-ekitaldian 3.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-kopurua izatea.

k) Azken zerga-ekitaldian 3.000.000 euro baino gutxiagoko balantzea izatea.

l) Aurreko ekitaldian, programa berdina dela-eta diru-laguntzarik jaso ez izana.

m) Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan, gutxienez, hastea jardueran

Betekizunak eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar dira, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte eutsi behar zaie.

Honako erakunde hauek geratzen dira diru-laguntza honetatik kanpo: sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak eta ondasun erkidegoak, eta sozietate zibilak.

15. artikulua. Diruz lagun daitekeen egitatea.

Egitate hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat: makinak edo ekipamenduak modernizatu, hobetu edo gehitzeko egindako inbertsioak, lehiakortasuna eta ingurumenaren kudeaketa hobetzeko eta langileen segurtasuna eta berdintasuna hobetzeko badira.

Diru-laguntza jasotzen duten ondasunak eskaera egiten duen enpresan aplikatu eta ezarri beharko dira, eta enpresak berak jasoko ditu haien onurak. I. eranskinean zehazten diren elkartegietan eta industrialdeetan kokatutako zentroetan zuzenean aplikatzekoak diren inbertsioak baino ez dira diruz lagunduko.

Horretaz gain:

alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas, así como inscritas en el Registro Mercantil.

g) No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

h) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma foral de Subvenciones, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

i) Tener una plantilla media en los 6 meses anteriores a la presentación de la solicitud menor o igual a 15 personas.

Se considerará perteneciente a la plantilla el personal autónomo adscrito a la actividad de la empresa que, por su condición, no puede estar dado de alta en el Régimen General de la Seguridad Social.

j) Haber tenido durante el último ejercicio fiscal un volumen de negocio inferior a 3.000.000 de euros.

k) Haber tenido durante el último ejercicio fiscal un balance general inferior a 3.000.000 de euros.

l) No haber recibido subvención por el mismo programa en el ejercicio anterior.

m) Haber iniciado la actividad (alta en IAE) al menos dos años antes a la presentación de la solicitud.

Los requisitos deberán acreditarse en el momento de presentar la solicitud y mantenerse hasta el momento de la resolución y pago de la subvención.

Quedan excluidas de manera expresa de la condición de entidad beneficiaria las sociedades públicas y las entidades de derecho público, las comunidades de bienes y las sociedades civiles.

Artículo 15. Hecho subvencionable.

Tendrá la consideración de hecho subvencionable las inversiones realizadas para la modernización, mejora o ampliación de maquinaria o equipamientos que impliquen una mejora de la competitividad, la mejora de la gestión medioambiental o la mejora de la seguridad e igualdad de las personas trabajadoras.

Los bienes subvencionados deberán ser de aplicación e implementación en la entidad solicitante, residiendo el beneficio de los mismos en la propia entidad, considerándose subvencionables solo las inversiones con aplicación directa en los centros ubicados en Ekartegiak y polígonos industriales relacionados en el Anexo I.

Además:



- | | |
|--|---|
| a) Enpresaren jarduerarekin zuzenean lotuta daudenak. | a) Deben estar directamente relacionadas con la actividad de la empresa. |
| b) Gutxienez 2 urtez jarraian egon behar dute enpresan aktiboan, lantoki berebean. | b) Deben permanecer un tiempo mínimo de 2 años en el activo de la empresa, y en el mismo centro de trabajo. |
| c) Ezin dira hirugarrenei lagata egon, ezta alokatuta ere, kontraprestazioa izan zein ez izan. | c) No serán cedidas a terceros, ni alquiladas, con o sin contraprestación. |
| d) Eskatzailea ez den beste erakunde batek fabrikatutakoak izan beharko dira. | d) Deben haber sido fabricadas por una entidad distinta a la solicitante. |
| e) Berriak izan behar dira. | e) Deben ser nuevos. |

16.artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketan gastuak.

1. Honako kontzeptu hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat:

- a) Informatikako aplikazio eta programa erosi berriak. Erabilerako lizentziak berritzea diru-laguntzetatik kanpo geratzen da.
- b) Merkataritza elektronikoa ahalbidetzen duten web orriak sortzea edo egokitzea.
- c) Informazioa prozesatzeko ekipoa.
- d) Makineria.
- e) Tresneria.
- f) Instalazioak egokitu edo hobetzeko lanak.
- g) Garraio-elementuak (material edo salgaien lurreko garraiorako bakarrik).

Diru-laguntza jaso dezaketan gastutzat joko dira 2018ko azaroaren 1aren eta 2019ko urriaren 31ren (biak barne) bitarteko faktura duten inbertsioak.

Leasing-aren kasuan, bakarrik izango da diruz laguntzekoa aurreko paragrafoan adierazitako daten arteko kuoten printzipala, baldin eta leasing-kontratua data horien artean sinatu bada.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- a) BEZa eta gainerako zerga eta tasak.
- b) Deskontuak.
- c) Enpresa eskatzaileari lotutako enpresa edo pertsonen bidez egindako gastuak.
- d) Bigarren eskuko ondasunak eskuratzea.
- e) Kontsumigarriak (tinta, tonerra, gutun-azalak...).
- f) Erakunde onuradunaren jarduerarekin zalantza barik identifikatu ezin diren gastu guztiak edota deialdian ezarritako epearen barruan egin ez direnak.
- g) Leasingaren kasuan, interesak eta gainerako gastuak
- h) Ondasunen Renting operatiboa

Artículo 16. Gastos subvencionables.

1. Se consideran gastos subvencionables las inversiones en los siguientes conceptos:

- a) Aplicaciones y programas informáticos de nueva adquisición. Queda excluida la renovación de licencias de uso.
- b) Creación o adecuación de Páginas Web para que posibiliten el comercio electrónico.
- c) Equipos para proceso de información.
- d) Maquinaria.
- e) Utillaje.
- f) Obras de adecuación o mejora de las instalaciones.
- g) Elementos de transporte (solamente para transporte terrestre de materiales o mercaderías).

Se consideran subvencionables las inversiones cuya fecha de factura esté comprendida entre el 1 de noviembre de 2018 y el 31 de octubre de 2019 (ambas fechas inclusive).

En el caso de Leasing únicamente se considerará subvencionable el principal de las cuotas comprendidas entre las fechas indicadas en el párrafo anterior y siempre que el contrato de Leasing esté firmado entre las mencionadas fechas.

2. No se considerarán gastos subvencionables los siguientes supuestos:

- a) El IVA y demás impuestos y tasas.
- b) Descuentos.
- c) Gastos realizados a través de empresas o personas vinculadas a la empresa solicitante.
- d) Adquisición de bienes de segunda mano.
- e) Consumibles (tinta, tóner, sobres, etc.).
- f) Todos aquellos gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad de la entidad beneficiaria y/o no se realicen en el plazo establecido.
- g) En el caso de Leasing, los intereses y demás gastos.
- h) El Renting operativo de bienes



i) 50 eurotik beherako inbertsioen fakturak

i) Las facturas de inversiones inferiores a 50 euros

17. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen eta instrukzio-egileak onartutako inbertsioaren % 25 izango da, gehienez. Muga hauek izango ditu:

a) 1.000 eurora arte, informatikako aplikazio eta programetan, informazioa prozesatzeko ekipoetan eta web orrietan..

b) 4.000 eurora arte, gainerako inbertsioetan.

Diru-laguntzaren zenbateko osoa ezin da izan 5.000 euro baino handiagoa erakunde bakoitzarentzat.

Artículo 17. Importe de la subvención.

El importe de la subvención será de hasta un 25% de la inversión subvencionable aprobada por el órgano instructor, con las siguientes limitaciones:

a) Hasta 1.000 euros en el conjunto de aplicaciones y programas informáticos, equipos de proceso de la información y páginas web.

b) Hasta 4.000 euros en el resto de inversiones.

El importe total de la subvención no podrá ser superior a 5.000 euros por entidad beneficiaria.

18. artikulua. Eskabideak nola aurkeztu.

Eskabidea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko bulego birtualaren bidez egingo da: www.bizkaia.eus - Izapideak.

Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea, ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.

Horrez gainera, eskabidea aurkezteko beharrezkoa da Ekonomi Sustapeneko Erakundearen eta Pertsonen Erregistroan (ESEPS) izena ematea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko apirilaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko maiatzaren 3ko 85/2011 Foru Dekretuak arautzen dute erregistroa.

Egoera horretan ez badago, erakundeak izena emateko eskabidea bete beharko du, diru-laguntzarako eskabidea izapidetu baino lehen.

Eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio diru-laguntza ematen duen organoari zuzenean informazioa lor dezan jakiteko ea egunean dituen zerga-eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, Lanbideri edo dagokion Enpleguko zerbitzu publikoarekikoak eta beste edozein administrazio publikoarekikoak.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritako tratatuko dira datu pertsonalak.

Eskabideekin batera, ezarritako dokumentazioa aurkeztu behar da; horretarako, gorago aipatu den webgunean agiriak eransteko dagoen sistema erabili behar da.

19. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

a) Ezarritako ereduaren arabeko memoria.

Artículo 18. Presentación de las solicitudes.

La solicitud se presentará por Internet, a través de la oficina virtual del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial en www.bizkaia.eus - Tramites.

Para ello deberá disponer de firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA...), estar dado de alta en el servicio Bizkaibai, o acceder a través del certificado electrónico B@kQ que podrá ser solicitado en nuestras oficinas de Obispo Orueta, 6.

Para la presentación de la solicitud será requisito que la entidad figure dada de alta en el registro de entidades del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial regulado mediante el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 61/2010, de 27 de abril y el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 85/2011, de 3 de mayo.

En caso de no encontrarse en esta situación, la entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción como paso previo a la tramitación de la solicitud de la subvención.

La presentación de la solicitud conllevará la autorización de la persona o entidad solicitante para que el órgano concedente pueda obtener de manera directa la información relativa a su situación tributaria, con la Seguridad Social, con Lanbide o el servicio público de empleo que corresponda y con cualquier otra administración pública.

Esta información será tratada conforme a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se fije, utilizándose el sistema de anexo de documentación existente en el portal virtual anteriormente citado.

Artículo 19. Documentación a presentar junto con la solicitud.

a) Memoria según modelo establecido.



b) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.

Memoria-eredua eta hartzekodunaren fitxa www.bizkaia.eus web orrian deskargatu daitezke (enpresak eta nazioartekotzea – ekintzailatza – modulu industrialak, bulegoak eta lurzorua).

c) Erakunde eskatzailea errenta-araubidean badago, errentatzailearen ziurtagiria, ordainketa guztiak egunean dituela egiaztatzeko.

d) Obrak egiteko baimena eskatzen denean, erakunde eskatzailea errenta-araubidean badago, obrak egiteko errentatzailearen baimena.

e) Hornidura-enpresek egindako aurrekontuak Gastua eskaera aurkeztu aurretik egin bada, fakturak eta ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Inbertsioaren zenbatekoa 40.000 euro (BEZik gabe) baino gehiago bada obra-kontratuetan, edo 15.000 euro (BEZik gabe) baino gehiago beste kontratu mota batzuetan, onuradunak egiaztatu beharko du gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu dituela, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada.

f) Leasingaren kasuan, kontratua.

20. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea argitalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2019ko apirilaren 30eko 13:30ean bukatuko da.

21. artikulua. Laguntzak emateko prozedura.

Norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira diru-laguntzak, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutakoarekin bat.

5/2005 Foru Arauaren 20. artikulua ezarritakoari jarraiki, dekretu honen ondorioetarako, honako hau joko da norgehiagoka deritzon prozeduratzat: diru-laguntzak emateko, aurkezturiko eskabideak erkatu egiten dira; oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik zehaztutako balorazio irizpideen arabera, eskabideen arteko lehenetsun-hurrenkera bat ezartzen da; eta irizpideok aplikatuz baloraziorik altuena lortu duten eskabideei adjudikatzen zaie laguntza, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz.

Aurrekoa gorabehera, eskatutako betekizunak

b) Ficha de parte acreedora, en el caso de que no consten los datos de domiciliación bancaria en la Diputación Foral de Bizkaia, o si se desea modificarlos.

El modelo de memoria y la ficha de parte acreedora pueden descargarse de la página web www.bizkaia.eus - empresas e internacionalización - emprendimiento - módulos industriales, oficinas y suelo.

c) Si la entidad solicitante está en régimen de alquiler, certificado de la persona arrendadora de estar al corriente en los pagos correspondientes.

d) En el caso de solicitar subvención para la realización de obras, si la entidad solicitante está en régimen de alquiler, permiso de la persona arrendadora para realizar las obras.

e) Presupuestos emitidos por las empresas suministradoras. En el caso de que el gasto se hubiera hecho con anterioridad a la fecha de la presentación de la solicitud deberá presentar las facturas junto con sus justificantes de pago.

Cuando el importe de la inversión supere los 40.000 euros (iva excluido) en contratos de obra o 15.000 euros (iva excluido) en otro tipo de contratos, la entidad beneficiaria deberá acreditar haber solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de subvención.

f) En el caso de Leasing, contrato.

Artículo 20. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes, se iniciará el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará a las 13:30 horas del 30 de abril de 2019

Artículo 21. Procedimiento de concesión.

Las subvenciones reguladas se concederán en régimen de concurrencia competitiva, previsto en el artículo 20 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo.

Se entiende, de conformidad con el artículo 20 de la Norma foral 5/2005, como concurrencia competitiva, el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación de las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

No obstante lo anterior, se podrá exceptuar el requisito



betetzen dituzten eskaeren arteko lehenetasun-hurrenkera ezarri beharra salbuetsi ahal izango da baldin eta deialdian izendatutako kreditua nahikoa bada, eskabideak aurkezteko epea amaituta aurkeztu diren eskaeren kopurua kontuan hartuta.

22. artikulua. Ebaluazio-irizpideak.

Gutxienez 35 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ezetsi egingo dira, laguntza ekonomikoa jasotzeko gutxienezko puntuaziora ez heltzeagatik.

Eskabideak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- a) Enpresaren lehiakortasuna hobetzea: 45 puntu gehienez.
- b) Ingurumen-kudeaketa hobetzea 15 puntu, gehienez.
- c) Lanpostuan emakumeen eta gizonen segurtasun eta berdintasuna hobetzea 15 puntu, gehienez.
- d) Erakunde eskatzailearen inbertsioaren finantzazio propioaren portzentajea: 5 puntu, gehienez.
- e) Inbertsioak dakarren ahalegina, erakunde eskatzailearen batez besteko plantillaren tamaina kontuan hartuta: 10 puntu, gehienez.
- f) Inbertsioak dakarren ahalegina, enpresak 2016eko ekitaldian izan duen fakturazioa kontuan hartuta: 10 puntu, gehienez.
- g) Akziodunen % 50 gutxienez emakumeak izatea eta jabetzaren % 50 baino gehiago haiena izatea 5 puntu.
- h) Gutxienez akziodunen % 50 gazteak izatea eta gutxienez jabetzaren % 50 haiena izatea. 5 puntu.

23. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa

Eskabidearekin batera fakturak eta haien ordainketen frogagiriak aurkeztu badira, diru-laguntza ematen den unean justifikatutako zenbatekoa kontuan hartuko da ordainketa egiteko. Kasu horretan, justifikazio-kontu partzialtzat hartuko da fakturekin eta ordainketen frogagiriekin batera aurkezten den eskabidea.

Eskabidearekin batera fakturarik eta ordainagiririk aurkeztu ez bada, ordainketa justifikazio-kontua aurkeztu ondoren egingo da, baina, ordainketa egin aurretik, egiaztatuko da gastua diruz lagundu daitekeen egitatea den eta zenbatekoa diru-laguntzaren xedera egokitzen den.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere, bete dituztela egiaztatuko da.

de fijar un orden de prelación entre las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos para el caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente, atendiendo al número de solicitudes una vez finalizado el plazo de presentación.

Artículo 22. Criterios de Valoración.

Las solicitudes que no alcancen un mínimo de 35 puntos serán desestimadas por no alcanzar la puntuación mínima para ser apoyadas económicamente.

Las solicitudes presentadas se valorarán de acuerdo a los siguientes criterios:

- a) Mejora de la competitividad de la empresa: hasta 45 puntos.
- b) Mejora de la gestión medioambiental: hasta 15 puntos.
- c) Mejora de la seguridad e igualdad de mujeres y hombres del puesto de trabajo: hasta 15 puntos.
- d) Porcentaje de financiación propia de la inversión por parte de la entidad solicitante: hasta 5 puntos.
- e) Esfuerzo que supone la inversión respecto al tamaño de la plantilla media de la entidad solicitante: hasta 10 puntos.
- f) Esfuerzo que supone la inversión respecto a la facturación de la empresa en el ejercicio 2018: hasta 10 puntos.
- g) Accionariado formado por al menos un 50% de mujeres que tengan más de un 50% de la propiedad: 5 puntos.
- h) Accionariado formado por al menos un 50% de personas jóvenes que tengan al menos un 50% de la propiedad: 5 puntos.

Artículo 23. Abono de la subvención.

Si en la solicitud se hubieran incluido facturas y sus justificantes de pago correspondientes a todas las inversiones que resulten subvencionadas en la adjudicación, el abono de la subvención se realizará tras la notificación de la subvención. En este caso, la solicitud junto con las facturas y sus justificantes de abono, tendrán la consideración de cuenta justificativa.

El abono, correspondiente a los conceptos en los que no se hubiera presentado factura y justificante de abono junto con la solicitud, se realizará tras la presentación de la cuenta justificativa, previa comprobación de que el gasto tiene la consideración de hecho subvencionable y que el importe económico se ajusta a lo subvencionado.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social.



24. artikulua. Justifikatzeko epea.

Justifikazioak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 3an, 13:30ean bukatuko da.

Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, ez-betetzea gertatu dela adierazi beharko da eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta hura garatzen duen erregelamenduan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra. Eskatzaileari 10 egun baliaduneko epea emango zaio (jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasita) justifikazioa aurkezteko.

25. artikulua. Justifikatzeko modua.

Diru-laguntzen justifikazioa egiteko, justifikazio-kontua eta gastuen ordainagiriak aurkeztu beharko dira, 18. artikuluan aipatutako bulego birtualean, «Nire espedienteak» atalean, «Justifikazioak egin» aukeran. Hain zuzen ere, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Ezarritako ereduaren arabeko memoria.
- b) Diruz lagundutako gertaeren gastuen zerrenda sailkatua. Dokumentua bulego birtualaren bitartez beteko da.
- c) Diruz lagundutako inbertsioak finantzatzeko erabili diren beste sarrera batzuen zerrenda xehatua, eredu ofizialaren arabekoa.
- d) Fakturak edo merkataritza-trafikoan haien baliokide diren ziurtagiriak, eta ordainketaren ziurtagiriak.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak diru-laguntzaren justifikaziorako beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio entitate onuradunari.

Diruz lagun daitekeen gastu edo inbertsioaren zenbateko guztia justifikatu behar da, ez emaniko diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deskargarako jarraibideak eta eredu ofizialak www.bizkaia.eus web orrian egongo dira (empresak eta nazioartekotzea - ekintzailetza - modulu industrialak, bulegoak eta lurzorua).

III. TITULUA

Elkarteak sustatzeko eta industria-poligonoen kudeaketa- eta hobekuntza-planak egiteko diru-laguntzak

26. artikulua. Definizioak

Honako hauek honela ulertzen dira:

Industria poligonoa: erabilera nagusi gisa industria erabilera daukan eta dagoeneko urbanizatuta dagoen esparrua, eta kasuan kasuko elementu komunak

Artículo 24. Plazo de justificación.

La presentación de la justificación finalizará a las 13:30 horas del 3 de diciembre de 2019.

La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la declaración de incumplimiento con las responsabilidades establecidas en la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el reglamento que la desarrolla, y previo requerimiento para que en el plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente al que tenga lugar la notificación, la presente.

Artículo 25. Forma de justificación.

Las subvenciones deberán justificarse mediante la presentación, a través de la oficina virtual indicada en el artículo 18, en el apartado "Mis Expedientes", "Realizar Justificaciones", de la cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, lo que implica la aportación de la siguiente documentación:

- a) Memoria según modelo oficial.
- b) Relación clasificada de gastos del hecho subvencionado. Este documento se cumplimentará a través de la oficina virtual.
- c) Relación detallada de otros ingresos que hayan financiado las inversiones subvencionadas, según modelo oficial.
- d) Facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico mercantil y sus justificantes de abono.

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial podrá requerir a la entidad beneficiaria cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada justificación de la subvención.

La justificación se realizará por el importe total del gasto o inversión subvencionable, no por el importe de la subvención concedida.

Las instrucciones de descarga y los modelos oficiales estarán disponibles en la página web www.bizkaia.eus - empresas e internacionalización - emprendimiento - módulos industriales, oficinas y suelo.

TÍTULO III

Subvenciones para el fomento del asociacionismo y la elaboración de planes de gestión y mejora de polígonos industriales

Artículo 26. Definiciones.

Se entiende por:

Polígono industrial: ámbito ya urbanizado constituido por un grupo de parcelas de uso mayoritariamente industrial y los correspondientes elementos comunes



dituenak (bideak, zona berdeak, instalazioak...), modu bateratuan kudeatuta; horietan, industria jarduerak garatzen dituzten edota industria laguntzako zerbitzuak ematen dituzten enpresek eraikitako azaleraren gutxienez %25 okupatzen dute.

Eraikitako azalera osoa: eraikinen barruan dagoen azalera osoa da, kanpoko hormen kanpoaldetik neurtuta.

Eraiki gabeko azalera: inolako eraikinik ez daukaten lurzatien baturaren azalera da.

Industria-poligonoaren azalera osoa: eraikitako azalera osoaren eta eraiki gabeko azaleraren batura da.

27. artikulua . Xedea.

Titulu honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoko industria poligonoak hobetzeko eta kudeaketa-planak egin eta ezartzeko, elkarrekin sustatzeko eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

28. artikulua. Entitate onuradunak.

Industria poligonoetako jabeen edota errentarien taldeak: izena edozein dela ere (jabeen erkidegoa, jabeen elkarteak, mantentze- eta zaintza-lanetako erakundeak), baldintza hauek betetzen badituzte;

a) Legez eratuta egotea.

b) Industria-poligonoan kokatutako enpresen % 50 baino gehiago elkartuta edukitzea, edo industria-poligono osoaren azaleraren jabetzaren % 50 baino gehiago izatea.

c) Industria-poligono batekoa izatea, Bizkaiko edozein udalerritan kokatutakoa; jabetza pribatukoa izatea poligonoaren azalera osoaren %50 baino gehiago edo azalera eraiki guztiaren %50 baino gehiago.

b) eta c) atalak egiaztatu egin beharko dira erakunde eskatzailearen erantzukizun aitortzearen bitartez, eredu ofizialari jarraiki.

d) Lankidetzak akordioaren bat izatea industria poligonoaren kudeaketa, zaintza eta hobekuntzari dagokionez, poligonoaren kokapenari dagokion tokiko erakundearekin.

e) Funtzio nagusia industria poligonoa kudeatu, zaindu eta hobetzera bideratutako jarduerak izatea.

f) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

(viarios, zonas verdes, instalaciones...) gestionados de forma conjunta, en el que al menos el 25% de la superficie construida total está ocupada por varias empresas que desarrollan actividades industriales y/o de servicios de apoyo industrial.

Superficie construida total: es la superficie total contenida dentro de los edificios, medida por la cara exterior de las paredes externas.

Superficie no construida: es la superficie de la suma de las parcelas en las que no exista ninguna edificación.

Superficie total del polígono industrial: es la suma de la superficie total construida y la superficie no construida.

Artículo 27. Objeto.

Constituye el objeto del presente Título aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para el fomento del asociacionismo, la elaboración e implementación de planes de gestión y mejora, y la colaboración público-privada en la gestión de polígonos industriales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 28. Entidades beneficiarias.

Agrupaciones de propietarios y propietarias, y/o arrendatarios y arrendatarias en polígonos industriales, independientemente de su denominación (comunidad de propietarios y propietarias, asociación de propietarios y propietarias, entidad de conservación y mantenimiento, etc), que cumplan las siguientes condiciones:

a) Estar legalmente constituidas.

b) Tener asociadas a más del 50% de empresas ubicadas en el polígono o a más del 50% del conjunto de la propiedad de la superficie total del polígono industrial

c) Pertenecer a un polígono industrial, ubicado en cualquier municipio de Bizkaia, en el que sea de propiedad privada más del 50 % de la superficie total del polígono o más del 50% de la superficie construida total.

Los apartados b) y c) se acreditarán mediante declaración responsable de la entidad solicitante, según modelo oficial.

d) Contar con algún acuerdo de colaboración en lo que se refiere a la gestión, conservación y mejora del polígono industrial, con la Entidad Local en la que se encuentre ubicado.

e) Que su función principal sea la realización de las actividades tendentes a la gestión, conservación y mejora del polígono industrial.

f) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.



g) Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan baldintza hori eskabidean aipaturiko aitortpenaren bitartez egiaztatuko da.

h) Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitortpenaren bitartez egiaztatuko da.

Betekizunak eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar dira, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte eutsi behar zaie.

29. artikulua. Diruz lagun daitekeen egitea.

Industria poligonoko gai komunak kudeatzea diruz lagun daitekeen gertaera gisa hartuko da, gaiak industria poligonoa kudeatu, zaindu eta hobetzera bideratuta badaude, kasuan kasuko toki erakundearekin lankidetzan.

30. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz laguntzeko gastuak izango dira industria-poligonoaren kudeaketari elkartutako jabe-elkarteek egindako gastuak; hain zuzen ere, honako gastu hauek:

a) "Industria-poligonoaren plan integral" bat egitea, "kudeaketa-plana" eta "Jarduketa-plana" izango dituen. Kudeaketa planak zehaztuko du, batetik, antolaketa egokiena erakunde eskatzailearen eguneroko nahiz epe luzerako jardueretan, eta, bestetik, industria poligonoan kokatutako enpresen eta poligonoa bera dagoen tokiko erakundearen betebeharrak eta eskubideak. Bestalde, Jarduketa-planean, poligonoa gaurkotzeko eta hobetzeko beharrezko inbertsioak zehaztuko dira, urgentziaren arabera inbertsioen arteko lehentasunak jarrita, eta inbertsioak gauzatzeko egutegia eta kostuaren gutxi gorabeherako kostua ezarriko dira.

b) "Industria poligonoaren kudeaketa-plana" egitea; plan horretan zehaztuko dira, batetik, enpresen antolaketarik egokiena eguneroko nahiz epe luzerako jardueretan, eta, bestetik, industria-poligonoan kokatutako enpresen eta poligonoa bera dagoen tokiko erakundearen betebeharrak eta eskubideak.

c) "Industria-poligonoa hobetzeko eta egokitzeko jarduketa-plan bat" egitea, non zehaztuko diren poligonoa hobetu eta gaurkotzeko beharrezko diren inbertsioak, urgentziaren arabera inbertsioen arteko lehentasunak jarrita, eta inbertsioak gauzatzeko erakunde arduraduna, egutegi posible bat eta gutxi gorabeherako kostua. Ez da diruz lagunduko baldin eta industria-poligonoaren kudeaketa-plana onartuta eta ezarrita ez badago. Plana onartu eta ezartzeko, erakunde eskatzailearekin eta industria-poligonoa kokatuta dagoen herriko toki erakundearekin lortutako

g) No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

h) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma foral de subvenciones, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

Los requisitos deberán acreditarse en el momento de presentar la solicitud y mantenerse hasta el momento de la resolución.

Artículo 29. Hecho subvencionable.

Tendrá la consideración de hecho subvencionable la gestión de los asuntos comunes del polígono industrial tendentes a la gestión, conservación y mejora del polígono industrial, en colaboración con la entidad local en la que se encuentre ubicada.

Artículo 30. Gastos subvencionables.

Se consideran gastos subvencionables los gastos incurridos por la entidad solicitante que estén asociados a la gestión del polígono industrial como son:

a) Elaboración de un "Plan integral del polígono industrial", que constará de un "Plan de gestión", en el que se definirá la mejor forma de manejar la organización durante sus actividades cotidianas y a largo plazo, así como los derechos y obligaciones de las empresas ubicadas y de la entidad local en la que se encuentre ubicado el polígono industrial, y de un "Plan de actuación para la mejora y modernización del polígono" en el que se definirán las inversiones necesarias para la mejora y modernización del polígono, priorizándolas según su urgencia, y definiendo el posible calendario de ejecución y una estimación de su coste.

b) Elaboración del "Plan de gestión del polígono industrial" en el que se definirá la mejor forma de manejar la organización durante sus actividades cotidianas y a largo plazo, así como los derechos y obligaciones tanto de las empresas ubicadas como de la entidad local en la que se encuentre ubicado el Polígono Industrial.

c) Elaboración de un "Plan de actuación para la mejora y adecuación del polígono industrial" en el que se definirán las inversiones necesarias para la mejora y modernización del polígono, priorizándolas según su urgencia, y definiendo la entidad responsable de su ejecución, el posible calendario y una estimación del coste. No será subvencionable si no se encuentra aprobado e implementado el plan de gestión del polígono industrial. Dicha aprobación e implementación deberá hacerse con el acuerdo tanto de la entidad solicitante como de la entidad local en la que se



akordioa beharko dira.

d) Industria-poligonoaren lege, hirigintza, ingurumen eta abarretako egoerari buruzko azterlana idaztea.

Aurreko paragrafoetan aipatutako gastuak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta fakturaren data 2018ko urriaren 1ean hasi eta adjudikaziotik urte natural bat betetzen den hilabeteko azken egunean amaitzen den aldiaren barruan badago.

e) Industria-poligonoa kudeatu, kontserbatu eta hobetzeko jardueren lan teknikoak egiteko erakunde eskatzaileak kontratatutako langileen gastuak, 2018ko urriaren 1ean hasi eta adjudikaziotik urte natural bat betetzen den hilabeteko azken egunean amaitzen den aldiaren egindakoak.

31. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa aurreko artikuluan zehazten den diruz lagundu daitekeen gastuaren % 75era iritsi daiteke.

a) 15.000 euro, industria- poligonoaren plan integrala egiteko.

b) 10.000 euro, industria-poligonoaren kudeaketa plana egiteko.

c) 10.000 euro, industria-poligonoa hobetu eta egokitzeko jarduketaren plan bat egiteko.

d) 5.000 euro, industria-poligonoaren egoerari (legezkoa, hirigintzako, ingurumenekoa...) buruzko azterlana idazteko.

e) 5.000 euro, kontratatutako langileen gastuetarako.

Diru-laguntzaren zenbateko osoa ezin da izan 30.000 euro baino handiagoa erakunde bakoitzarentzat.

32. artikulua. Eskabideak nola aurkeztu.

Eskabidea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko bulego birtualaren bidez egingo da: www.bizkaia.eus – Izapideak.

Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea, ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.

Eskaera aurkeztu ahal izateko, erakundeak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko erakundearen erregistroan alta emanda izan behar du, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 21eko 61/2010 Foru Dekretuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 3ko 85/2011 Foru Dekretuaren bitartez araututakoa. Egoera horretan ez badago, erakundeak inskripzio eskabidea bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu aurretik.

Eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio diru-laguntza ematen duen organoari zuzenean

encuentre ubicado el polígono industrial.

d) Redacción de estudio de situación legal, urbanística, medioambiental, etc. del polígono industrial.

Se consideran subvencionables los gastos relacionados en los apartados anteriores cuya fecha de factura esté comprendida entre el 1 de octubre de 2018 y el último día del mes en que se cumpla un año natural desde la adjudicación.

e) Gastos del personal contratado por la entidad solicitante que realice las funciones técnicas de las actividades tendentes a la gestión, conservación y mejora del polígono industrial, producidos entre el 1 de octubre 2018 y el último día del mes en que se cumpla un año natural desde la adjudicación.

Artículo 31. Importe de la subvención.

El importe de la subvención será de hasta un 75% del gasto subvencionable aprobado, con las siguientes limitaciones:

a) 15.000 euros para la elaboración del plan integral del polígono industrial.

b) 10.000 euros para la elaboración del plan de gestión del polígono industrial.

c) 10.000 euros la elaboración del plan de actuación para la mejora y adecuación del polígono industrial.

d) 5.000 euros para la redacción de estudio de situación legal, urbanística, medioambiental, etc. del polígono industrial.

e) 5.000 euros para los gastos del personal contratado.

El importe total de la subvención no podrá ser superior a 30.000 euros por entidad beneficiaria.

Artículo 32. Presentación de las solicitudes.

La solicitud se presentará por Internet, a través de la oficina virtual del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial en www.bizkaia.eus – Tramites.

Para ello deberá disponer de firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA...), estar dado de alta en el servicio Bizkaibai, o acceder a través del certificado electrónico B@kQ que podrá ser solicitado en nuestras oficinas de Obispo Orueta, 6.

Para la presentación de la solicitud será requisito que la entidad figure dada de alta en el registro de entidades del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial regulado mediante el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 61/2010, de 21 de abril y el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 85/2011, de 3 de mayo. En caso de no encontrarse en esta situación, la entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción como paso previo a la tramitación de la solicitud de la subvención.

La presentación de la solicitud conllevará la autorización de la persona o entidad solicitante para



informazioa lor dezan jakiteko ea egunean dituen zerga-eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, Lanbideri edo dagokion Enpleguko zerbitzu publikoarekikoak eta beste edozein administrazio publikoarekikoak.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritako tratatuko dira datu pertsonalak.

Eskabideekin batera, ezarritako dokumentazioa aurkeztu behar da; horretarako, gorago aipatu den webgunean agiriak eransteko dagoen sistema erabili behar da.

33. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Kasu guztietan:

a) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira

b) Toki erakundearekin lankidetzan aritzeko akordioaren ziurtagiria, industria poligonoa kudeatzeko, zaintzeko eta hobetzeko.

c) Erakunde eskatzailearen estatutuen kopia.

d) Erakundearen ordezkari nahikoa duen pertsona batek sinatutako adierazpena (eredu ofizialean), erakundeak Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) dela-eta duen egoerari eta haren berreskurapenari buruzkoa.

e) 28. artikuluko b) eta c) ataletan ezarritako alderdien erantzukizun aitortpena, eredu ofizialean.

2. Erakunde eskatzaileak industria poligonoa kudeatu, zaindu eta hobetzera bideratutako jardueretan funtzio teknikoak egiteko kontratatutako langileen gastuetarako diru-laguntza eskatuz gero:

a) Kontratatu den pertsonak burutu beharko dituen lan eta eginkizunak deskribatzen dituen txostena, eredu ofizialean egina.

b) Kontratazioa egin bada, sinatutako lan-kontratuaren kopia.

c) Kontratutako pertsonaren nominen kopia, halakorik izanez gero.

Hartzekodunaren fitxaren, erantzukizunpeko adierazpenaren, eta kontratatutako langileen eginkizunen txostenaren ereduak www.bizkaia.eus web orritik deskargatu daitezke (enpresak eta nazioartekotzea-ekintzaziletza-industria moduluak, bulegoak eta industriarako lurzorua).

que el órgano concedente pueda obtener de manera directa la información relativa a su situación tributaria, con la Seguridad Social, con Lanbide o el servicio público de empleo que corresponda y con cualquier otra administración pública.

Esta información será tratada conforme a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

